



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

**EMOZIOAK LANTZEN LITERATURAREN BIDEZ:
LEHEN HEZKUNTZAKO BIGARREN MAILARAKO
PROPOSAMEN DIDAKTIKOA**

2019/2020 Ikasturtea

EGILEA: Romay Gómez, Andrea

ZUZENDARIA: Rodríguez Miñambres, Paloma

LABURPENA

Proposamen didaktikoaren helburua *Así es mi corazón* (Witek, 2004) liburuan oinarrituta, lehen hezkuntzako bigarren mailan gaitasun eta trebetasun emozionalen garapena lantzea izan da. Honakoa aurrera eramateko lau bloke sortu eta emozioen inguruko jarduera ezberdinak burutu dira. Hasieran ikasleek aurre ezagutzetan egokitutako jarduerak jorratu dituzte; ondoren, liburuarekin jardun dute; geroago, bizitzan zehar izaten dituzten egoera ezberdinetan oinarrituz *role playing* bat gauzatu dute. Horretaz gain, egoera eta istorio ezberdinak idatzi dituzte. Amaitzeko, ikasle bakoitzak jorratutakoaren inguruko autoebaluazioa egin du. Ikerlan honetatik ateratako ondorioen artean nabarmendu behar da hasieran ikasleek zailtasun handiak erakutsi dituztela emozioak antzemateko orduan, baita ere euskaraz egoera desberdinak adierazteko. Hala ere, saioak aurrera egin ahala egunerokotasunean bizi izaten dituzten egoeretan oinarrituz sentitzen dutena hitzen bidez adierazteko gaitasuna garatu dute.

Hitz gakoak: Lehen hezkuntza, emozioen lanketa, literatura, ipuinak.

RESUMEN

El objetivo de este trabajo ha sido elaborar una propuesta didáctica centrada en promover el desarrollo de capacidades y habilidades emocionales en 2º curso de educación primaria a partir del cuento *Así es mi corazón* (Witek, 2004). Mediante las actividades programadas se trabajan las emociones siguiendo una progresión de cuatro bloques: el primer bloque se centra en los conocimientos previos; en el segundo, se trabaja el libro; el siguiente bloque se centra en el *role playing*, llevando a cabo diferentes situaciones de la vida diaria y escribiendo pequeñas historias, y el cuarto bloque finaliza con una autoevaluación del procedimiento hecho por cada alumno. Entre las consecuencias extraídas de este trabajo de investigación hay que destacar que los alumnos al principio tuvieron problemas para reconocer sus propias emociones y también, para expresar diferentes situaciones en euskera. Aun así, han desarrollado la capacidad de expresar mediante palabras lo que sienten a partir de situaciones cotidianas.

Palabras claves: Educación primaria, trabajo de emociones, literatura, cuentos.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
2. MARKO TEORIKOA	5
2.1 ADIMEN EMOZIONALA HEZKUNTZA ESPARRUAN.....	5
2.1.1 Adimen emozionala eta hezkuntza emozionala.....	5
2.1.2 Adimen emozionalaren eragina gizartean eta hezkuntzan	11
2.2 ADIMEN EMOZIONALAREN GARAPENA HEZIKETA LITERARIOAREN BITARTEZ	12
2.2.1 Literaturaren sustapena Lehen Hezkuntzan	12
2.2.2 Ipuinen garrantzia	13
2.2.3 Irakur ohiturak eta zaletasuna	14
2.2.4 Eskola-liburutegia.....	15
2.2.5 Familiaren eragina.....	16
3. HELBURUAK	17
4. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA	17
5. EMAITZAK.....	26
6. ONDORIOAK	38
7. HOBETZEKO PROPOSAMENAK	40
8. BIBLIOGRAFIA	42
9. ERANSKINAK.....	49

1. SARRERA

Lehen Hezkuntzako etapan, batez ere, lehenengo urteetan, alderdi emozionalak garrantzi handia izaten du ikasleen garapenean eta ezinbesteko eragina du dimentsio kognitibo, emozional, afektibo eta sozialean. Horregatik, ikasleek emozioak ezagutu eta lantzen dituzte eta honakoak berebiziko ardura du gaitasun emozionalak garatzean, arlo desberdinetan abantailak ekartzen dituelako. Bisquerrak (2008) aipatzen duen moduan, gaitasun emozionalek eragin positiboa izaten dute trebetasunak eskuratzeko eta ikasteko prozesuetan, arazoei aurre egiteko, gizarte-harremanetan eta gatazkak konpontzeko gaitasunean, honela, haurraren garapen integrala eta oreka lortzen baita.

Lan honetan Lehen Hezkuntzako bigarren mailan emozioak lantzeko proposamen didaktikoa aurkezten da. Emozioak lantzea helburu izanik, emozioak erabiltzeaz gain, literaturaz baliatzen da aipatutakoak barneratzeko. Ipuina lanaren oinarri gisa hartzen da, literaturaren bitartez ikasleei emozio ezberdinak transmititzeko aukera dagoelako. Beraz, istorio ezberdinek emozioak modu inplizitu edo esplizituan helarazten dituzte. Haurrak istorioetan ageri diren pertsonaiekin identifikatu daitezke, emozioekin esperimendatzeko protagonisten papera bereganatuz, sentimendu eta emozioez betetako loturak ezarriz eta emozioak erregulatuz (López, 2011).

Lan honen egituran bi atal nagusi bereizten dira: marko teorikoa eta proposamen didaktikoa. Lehenengo atalean marko teorikoa ageri da, bertan adimen emozionala hezkuntza esparruan eta adimen emozionalaren garapena heziketa literarioaren bitartez lantzen da. Eta bigarrenik, unitate didaktikoa garatu izan da emozioak lantzeko asmoarekin. Horretaz gain, programazio didaktikoan lortutako datuak aztertu dira eta hobetzeko proposamenak sortu dira.


2. MARKO TEORIKOA

2.1 ADIMEN EMOZIONALA HEZKUNTZA ESPARRUAN

Atal honi hasiera emateko, adimen emozionalaren kontzeptua historian zehar autore ezberdinek egindako ikuspuntuak aurkituko dira. Halaber, adimen emozionalak hezkuntza arloan duen garrantzia.


2.1.1 Adimen emozionala eta hezkuntza emozionala

Salovey eta Mayer egileek (1990) adierazi zutenaren arabera adimen emozionala, norberaren eta besteen sentimenduak eta emozioak gainbegiratzeko, haien artean bereizteko eta informazio hori norberaren ekintza eta pentsamendua bideratzeko gaitasuna da. Aipatutako autoreen esanetan, adimen emozionala lau gaitasunetan (pertzepzio emozionala, pentsamendu emozionalaren erraztasuna, emozioen ulermena eta emozioen erregulazioa) oinarritzen da (1. Irudia).



1.Irudia. Adimen emozionalaren gaitasunak. Iturria: Salovey eta Mayer, 1990.

Baina Salovey eta Mayerrek artikulua argitaratu zuten momentuan oharkabean geratu zen, bost urte beranduago Golemanek (1995) adimen emozionalaren kontzeptua zabaldu zuen arte. Golemanek (1995) *Emotional Intelligence* liburua argitaratu zuen momentutik adimen emozionala kontzeptuaren sustapena oso handia izan zen. Salovey eta Mayerrek (1990) adimen emozionalaren inguruan adierazitakoan oinarrituz Golemanek (1995) adimen emozionalaren irizpideak (bakoitzak bere emozio propioak ezagutzea, emozioak maneiatzea, bakoitza bere burua motibatzea, besteen emozioak ezagutzea eta erlazio ezberdinak sortzea) zehaztu zituen (2.Irudia).




2.Irudia. Adimen emozionalaren irizpideak. Iturria: Goleman, 1995.

Adimen emozionalarekin lotuta, emozioak zer diren argi izatea ezinbesteko da. Horretarako, arlo emozionalean eta bereziki, hezkuntza esparruan adituak diren Vállés eta Vállés psikologoek (2000) emozioak kanpoko (gertakariak) edo barne (pentsamenduen bidezko oroitzapena) egoerak edo gertakari baten aurrean organismoak iraupen laburrean ematen duen ekintza dela adierazten dute.

Adimen emozionala hezkuntza esparrura eramanez, Bisquerra (2008) aipatu beharra dago. Haren esanetan, emozioek gure ongizatean eragin handia dute. Hala ere, pertsona bakoitzarentzat emozioak ezberdinak izango dira, emozioek pertsonarengan eragiten dutenaren arabera modu positibo edo negatiboan eragingo dio. Bisquerrak (2008) honakoa adierazten du emozioen inguruan:

Las emociones son reacciones a las informaciones (conocimiento) que recibimos en nuestras relaciones con el entorno. La intensidad de la reacción esta en función de las evaluaciones subjetivas que realizamos sobre como la información recibida va a afectar nuestro bienestar. En estas evaluaciones subjetivas intervienen conocimientos previos, creencias, objetivos personales, percepción del ambiente provocativo, etc. Una emoción depende de lo que es importante para nosotros. Si la emoción es muy intensa puede producir disfunciones intelectuales o trastornos emocionales (fobia, estrés, depresión) (Bisquerra, 2008, 19, orr).

Aipatutakoan oinarrituz, Bisquerrak (2008) emozio-hezkuntzatik abiatuta garatu beharreko bost gaitasun nagusi adierazten ditu: emozioen kontzientzia, erregulazio emozionala, autonomia pertsonala (autogestioa), pertsonen arteko inteligentzia eta norbere bizitzan eta ongizatean trebetasunak izatea (3.Irudia).



3.Irudia. Adimen emozionala. Iturria: Bisquerra, 2008.

Ildo horretatik, Bisquerrak (2008) adimen emozionalen egituraketa konpetentzia emozional hauetan kokatzen du:

- 1) **Emozioen kontzientzia:** bakoitzaren eta besteen emozioen kontzientzia izateko gaitasuna.
 - a. Bakoitzak bere emozioen kontzientzia izatea: norbere sentimenduak eta emozioak zehaztasunez hautemateko eta identifikatzeko gaitasuna. Honakoak askotariko emozioak esperimendatzeko aukera ematen du.
 - b. Bakoitzak bere emozioei izena jartzea: emozioetan oinarritutako hiztegia erabiltzeko gaitasuna.
 - c. Besteen emozioak ulertzea: besteen emozioak eta pentsaerak ulertzeko gaitasuna. Besteen esperientzietan enpatikoki inplikatzeko gaitasuna.
- 2) **Erregulazio emozionala:** emozioak modu egokian maneiatzeko gaitasuna. Emozioaren, kognizioaren eta portaeraren arteko harremanaz jabetzea dakar; besteak beste, aurre egiteko egitura egokia eta emozio positiboak autokudeatzeko gaitasuna izatea.
 - a. Emozioaren, kognizioaren eta portaeraren arteko elkarrekintzez jabetzea: emozio-egoerek portaeran eta emozioetan eragiten dute. Biak erregulatu daitezke kognizioaren bitartez.
 - b. Adierazpen emozionala: emozioak modu egokian adierazteko gaitasuna. Barneko egoera emozionala kanpoko adierazpenekin lotu beharrik ez dagoela ulertzeko gaitasuna, ez norberarengan, ez besteengan.
 - c. Erregulazio emozionalerako gaitasuna: norberaren sentimenduak eta emozioak arautu behar dira. Honakoak oldarkortasun eta frustrazioaren kontrola ahalbidetzen du, emozio negatiboak saihestuz.
 - d. Aurre egiteko trebetasunak: emozio negatiboari aurre egiteko gaitasuna. Autoerregulazio estrategiak erabiliz, egoera negatiboen intentsitatea eta iraupena hobetzea eragiten du.
 - e. Emozio positiboak birsortzeko gaitasuna: emozio positiboak nahita eta kontzienteki esperimendatzeko eta bizitzaz gozatzeko gaitasuna.

3) Autonomia pertsonala (autogestioa): autogestio pertsonala autoestimuan, bizitzaz gozatzeko jarrera positiboan, erantzukizunak hartzeko momentuan, arau sozialak kritikoki aztertzeko gaitasunean, laguntza eta baliabideak bilatzeko gaitasunetan eta autoeraginkortasun emozionala lantzeko unean eragiten du.

- a. Autoestimua: Bakoitzak bere buruaren irudi positiboa izatea.
- b. Automotibazioa: automotibatze eta jarduera ezberdinetan emozionalki inplikatzeko gaitasuna.
- c. Jarrera positiboa: automotibatze eta bizitzan zehar jarrera positiboa izateko gaitasuna.
- d. Erantzukizuna: portaera seguruetan, osasungarrietan eta etikoetan inplikatzeko asmoa.
- e. Arau sozialen analisi kritikoa: gizarte- eta kultura-mezuak kritikoki ebaluatzeko gaitasuna.
- f. Laguntza eta baliabideak bilatzeko: laguntza eta asetasun beharra identifikatzeko eta baliabide egokiak eskuratzeko gaitasuna.
- g. Autoeraginkortasun emozionala: Bakoitza bere burua nahi duen moduan ikustea.

4) Pertsonen arteko inteligentzia: beste pertsonekin erlazio positiboak mantentzeko gaitasuna.

- a. Oinarrizko trebetasun sozialak menperatzea: besteak beste, entzutea, agurtzea, mesedez eskatzea.
- b. Besteekiko errespetua: norbanakoaren eta taldeen arteko desberdintasunak onartu eta pertsona guztien eskubideak balioestea.
- c. Komunikazio hartzailea: besteei arreta emateko gaitasuna, ahoz nahiz hitzik gabe komunikatzean, mezuak zehaztasunez jasotzeko.
- d. Adierazpen-komunikazioa: elkarrizketak hasteko eta mantentzeko gaitasuna, norberaren pentsamenduak eta sentimenduak argi adierazteko gaitasuna, bai hitzeko komunikazioan bai hitzik gabekoan eta besteei erakusteko ongi ulertuak izan direla.

- e. Emozioak partekatzea: Emozioak besteei adierazteko eta entzuteko gaitasuna.
- f. Portaera soziala eta lankidetzak: eguneroko eta taldeko egoeratan parte hartzea, eta besteekiko adeitasun- eta errespetu-jarrerak izatea.
- g. Atertibitatea: agresibitatearen eta pasibitatearen artean portaera orekatua izatea.

5) Norbere bizitzan eta ongizatean trebetasunak izatea: Arazo pertsonalak, familiakoak, profesionalak eta sozialak konpontzeko jokabide egokiak eta arduratsuak izateko gaitasuna. Guztia ongizate pertsonala eta soziala lortze aldera.

- a. Arazoak identifikatzea: konponbide edo erabaki bat behar duten egoerak identifikatzeko eta arriskuak, oztopoak eta baliabideak ebaluatzeko gaitasuna.
- b. Egokitzapen-helburuak finkatzea: helburu positiboak eta errealistak finkatzeko gaitasuna.
- c. Gatazken konponbidea: gatazka eta pertsonen arteko arazoei aurre egiteko gaitasuna, arazoei irtenbide positiboak eta informatuak emanaz.
- d. Negoziazioa: gatazkak bakean konpontzeko gaitasuna, besteen ikuspegia eta sentimenduak kontuan hartuta.
- e. Ongizate subjektiboa: ongizate subjektiboaz modu kontzientean gozatzeko eta elkarreraginean dauden pertsonen ongizate subjektiboa transmititzen saiatzeko gaitasuna.
- f. Jario: bizitza profesional, pertsonal eta sozialean esperientzia optimoak sortzeko gaitasuna.

Beraz, arestian esan bezala, emozioek gure egunerokotasunen eta ongizatean eragin handia izaten dute. Hezkuntza arloak Bisquerrak aipatutako bost konpetentziak kontuan hartzen ditu, adimen emozionala hezkuntzan ez ezik, gizartean ere eragina izaten duelako. Hori dela eta, adimen emozionala gizartean zein hezkuntzan duen zereginetan zentratzea garrantzitsua suertatzen da.

2.1.2 Adimen emozionalaren eragina gizartean eta hezkuntzan

Emozioak bizitzako egoera eta alderdi guztietan (hezkuntza-prozesuetan barne) ageri dira, eta zenbait funtzio betetzen dituzte: jokabidea motibatzea, ingurunera egokitzen laguntzea, sentitzen duguna gainerakoei jakinaraztea eta garapena eta ongizate pertsonala sustatzea. Gainera, emozioek erabakiak hartzerako momentuan eragin nabarmena izaten dute, baita prozesu kognitiboetan ere, hala nola, pertzepzioan, arretan, memorian eta sormenean. Beraz, adimen emozionala eta ongizate psikologikoa garatzeak pentsamendua eta antolaketa kognitiboa bultzatzen dute (Bisquerra, 2009).

Horren haritik, nork bere burua hobeto ezagutzea, norberak sentitzen duena identifikatzeko, ebaluatzeko eta ulertzeko gai izatea eta norberaren emozioak erregulatzeko lagungarria da psikologikoki ondo egoteko eta antsietatea eta depresioa saihesteko (Extremera eta Fernández-Berrocal, 2004). Era berean, emozioak kontrolatzeko, interpretatzeko eta gainerakoekin behar bezala erlazionatzeko gai diren pertsonak bizitzako egoera ezberdinen aurrean positiboago aritzen dira, besteak beste, familian, lan-eremuan edo harreman pertsonaletan. Aitzitik, adimen emozionalerako trebetasunak garatu ez dituztenak etengabeko barne-borroketan murgilduta egon daitezke (Goleman, 2009). Esandakoaren adibide gisa, Fernández-Berrocalek, Alcaidek, Extremerak eta Pizarrok (2006) nerabe espainiar batzuei egindako ikerketa baten arabera, depresio handiena zutenak bat etortzen ziren sentimenduak eta emozioak erregulatzeko gaitasun txikiagoa zutenekin.

Ildo horri jarraituz, zailtasun emozional handiagoa eta antsietate edo estresa duten ikasleak, adimen emozionalerako trebetasun gutxiko ikasleak izaten dira. Hauek aukera gutxiago izango dute askotan hezkuntza-prozesuek dakartzaten erronkak gainditzeko eta, beraz, errendimendu akademiko txikiagoa izango dute. Aitzitik, emozio-trebetasun handiagoak dituzten ikasleek egoera berrietara egokitzea lortuko dute, eta erronka horiek dakartzaten esparruak gaindituko dituzte (Gil-Olarte, Palomera eta Brackett; Pérez eta Castejón, 2006).

Horrekin lotuta, Goleman (2009) adimen emozionala autokontzientzian, autorregulazioan, automotibazioan, enpatian eta gizarte-eremuan oinarritzen dela adierazten du. Horrela, giza garapenaren dimentsio afektiboa edozein hezkuntza-sistema ikasteko objektu gisa eratu beharko da. Izan ere, konpetentzia emozionalak ezinbestekoak dira bizikidetzan, ongizate

pertsonala eta soziala helduaro aktiboa bermatzeko, eta erreferentziatzen hartuta ikasleen hezkuntza integralerako eskubidea izateko.

Beraz, adimen emozionaleko trebetasunak menperatzeak bizitza zoriontsua izateko ezinbesteko onurak dakartza. Horien artean, lau eremu nabarmendu daitezke: pertsonen arteko harremanak, ongizate psikologikoa, errendimendu akademikoa edo laborala, eta jokabide disruptiboen agerpena (Fernández-Berrocal eta Ruiz, 2008).

2.2 ADIMEN EMOZIONALAREN GARAPENA HEZIKETA LITERARIOAREN BITARTEZ

Literaturaren bitartez emozioak antzemateko aukera daukagu. Haur eta gazte literaturak hainbat liburuetan emozioak helarazten dira eta ikasleek ikuskatu eta landu ditzakete. Horregatik, Lehen Hezkuntza literatura eta ipuinek garrantzi handia izaten dute. Beraz, hurrengo parrafoetan literaturaren sustapena, ipuinaren garrantzia eta honakoa eragiten duen ohitura eta zaletasunak ikusiko ditugu, baita eskola-liburutegia eta gurasoen garrantzia ere.

2.2.1 Literaturaren sustapena Lehen Hezkuntzan

Gaur egungo haur eta gazte literaturaren hastapenean, Teresa Colomerrek (2010) adierazten duenaren arabera, lau dira funtsezko alderdiak: "calidad literaria, valores educativos, opinión y gusto de los niños y niñas, y trayectoria del aprendizaje literario" (9, orr.). Bestalde, Cerrillok (2007) aipatutakoaren arabera haur eta gazte literaturan hiru alderdi hauek aintzat hartu behar dira: testuen kalitate literarioa, idazlanak irakurleen interes eta gustuetara egokitzea eta hautatutako lanek irakurleen gaitasun literarioa eskuratzen laguntzea.

Gainera, Colomer (2010) aburuz haur-literaturak funtsezko hiru alderdi eskaintzen dizkio haurari: imajinario kolektiborako sarbidea, hizkuntzaren ikaskuntza eta sozializazioa gure kulturaren berezko balioetan eta balio unibertsaletan. Imajinario kolektibo eta kultura-intertestualtasunerako sarbideari dagokionez, haur-literaturak sinbolo, irudi, mito unibertsal eta kulturalen multzoa eskaintzen dio haurari, bere ingurunea eta gainerako pertsonetara harremanak ulertu ahal izateko. Ahozko tradizioko literatura eta egilearena etengabe elikatzen dira, intertestualtasuna ahalbidetuz, hau da,

haurrak beste obra edo irudi bati egindako zuzeneko edo zeharkako aipamen baten esanahia ulertuz.

Colomerren esanetan (2010), literaturak honako onura hauek ere ekartzen dizkio haurrari: pentsamendu kritiko eta konplexu baten garapena bultzatzea, barneko mundu aberatsak sortzea, ludiko, umorezko, aniztasuneko eta fantasiarako funtzioak eskaintzea, sormena garatzea eta emozioak erregulatzeko egoerak bultzatzea.

Horrekin gain, literatura informazioa eskuratzeko modu ezin hobea izan daiteke; izan ere, denboran zehar, mundua ezagutzeko eta giza esperientzia ulertzeko erabili ohi da. Kultura guztiek sortu dute haurrak ezagutarazi behar duen literatura propioa (Bigas, 2001).

2.2.2 Ipuinen garrantzia

Ipuina eragile motibatzailea da eta haurraren interes handia pizten du. Fantastikoa dena erreal bihurtzeko aukera ematen du, baita pertsoniak identifikatzeko, haien fantasia, irudimena eta sormena askatzeko, tentsioak leuntzeko eta gatazkak konpontzeko ere. Ipuinetako protagonistekin identifikatzean, haurrek gaitasun handiagoa dute haien zailtasunak ulertzeko eta egunen batean horiek gaindituko dituztela pentsatu dezakete, haien buruarengan konfiantza handituz (Martín, 2006).

Bettelheimen arabera (1999), ipuinek funtzio terapeutikoa daukate. Istorio ezberdinetan sortzen diren egoeratan haurrek haien barne-gatazketarako irtenbideak aurki ditzakete eta identifikatuta sentitu daitezke. Fortún (2008) beste ikuspuntu batean oinarritzen da. Haren ikuspuntua ez da hain psikoanalista, tradiziozko ipuinak ausardia, ahalegina, ontasuna eta nagikeria, inbidia eta gezurrak bezalako balio positiboz beteta daudela adierazten du eta balio horiek sozializazio prozesuaren parte direla aipatzen du.

Honekin lotuta, haur eta gazte literaturak eta gaur egungo ipuinek balio eta emozioak jaso ohi dituzte, halaberrez. Nietok (2002) aipatzen duena gogoan hartuz, literaturaren analisiak haur-literatura osoa jaso dezake. Izan ere, literaturaren barnean balore positiboak ageri dira, besteak beste, zoriona edo adiskidetasuna eta balio sozialak. Beraz, ipuina ezinbesteko baliabidea da. Azken urteotan, ipuin ugari emozioak lantzen dituzte. Modu honetan, liburuen bitartez haurrek emozioak ezagutu eta identifika ditzakete, hala nola, poza, tristura, beldurra, amorrua eta maitasuna (Ceballos, 2016). Honela,

aurretik aipatu bezala, haurrak istorioetan ageri diren pertsonaiekin identifikatu daitezke, emozioekin esperimentatzeko protagonisten papera bereganatuz, sentimendu eta emozioez betetako loturak ezarriz eta emozioak erregulatuz (López, 2011).

2.2.3 Irakur ohiturak eta zaletasuna

Cerrillok eta Yuberok (2007) azaltzen dutenez, "ni nacemos lectores, ni no nacemos: nos hacemos lo uno o lo otro con el paso del tiempo" (280 orr.). Ideia horren arabera, irakurtzeko ohitura haurtzarotik esnatu eta garatu daitezke, baita ikaskuntzaren bitartez eskuratu ere. Horregatik irakurzaletasuna sustatzea beharrezkoa da, bai eta irakurketak haurtzaroan duen eragina eta praktika kontrolatzea ere. Ondorioz, irakurriko dena zuzen aukeratzeko eta nola landuko den zaintzeaz gain, irakurtzeko zaletasuna nola sustatu daitekeen aztertu behar da. Cerrillok (2005) adierazi zuen moduan, irakur zaletasuna eskolan eskuratzeaz gain, etxeko ohituren menpe ere badago. Izan ere, umeez etxean ikusten dutena barneratu eta eredutzat hartu dezakete. Morenok (2001) honakoa aipatzen zuen: "La familia es quien ejerce la influencia más directa en la motivación por la lectura" (179 orr.). Familia-inguruetan hanbat alderdik eragina izan dezakete, hala nola, guraso eta seme-alaben arteko elkarreagina, elkarrekin igarotzen duten denbora, gurasoen irakurketa-ohiturak (irakurketari ematen dioten denbora eta balioa) edo irakurketa aurkezteko modu ezberdinak (Rodríguez, Moreno eta Muñoz, 1988).

Bestalde, eskolaren eragina oso handia izaten da, izan ere, ikastetxea ikasleen testuinguruaren beste aldagai garrantzitsuenetako bat da. Fiz, Olea, Goicoechea eta Ibiricu (2000) eta Clark eta Foster (2005) autoreek diotenez, eskola-emaitzetan irakurtzeko gaitasunak duen garrantzia hain da handia, ezen arrakasta akademikoa edo eskola-porrota baldintzatzeaz gain, gizabanakoaren bizitza ere baldintzatuko baitu.

Irakurketa ez horren tradizionalera hurbilduz, García-Rodríguezek eta Gómez Díazek (2017) aurreiritziak saihestu eta era guztietako euskarriak dituzte irakurketa-jarduerak bultzatzen dituzte. Gainera, modu digitalean ematen den irakurketa sustatzen dute. Horretaz gain, ikasleen adinaren eta gaitasunen arabera jarraibide egokiak erabili behar dira liburua aukeratzeko orduan. Hau da, ikasleari zuzendutako irakurgaia izanik haren motibazioa

handitzeko eta etorkizunean irakurtzeko grina izateko aukera handiagoa izango da.

2.2.4 Eskola-liburutegia

Eskola-liburutegia hezkuntza-zerbitzu gisa, ikastetxearen ardatz dinamizatzaile, irakurtzeko prestakuntza eta ohituraren ardatza da (Coronas-Cabrero, 2000). Halaber, eskola-liburutegia curriculumaren ikuspegitik bideratutako zerbitzua da, eta, beraz, lotuta dago eskolan eramaten diren ikaskuntzekin (López-Fernandez, 1997) eta teknologia aurreratuenak erabiltzen dituztenekin. Ondorioz, ekintza programatuen bidez ikaskuntza, ikerketa eta irakaskuntza gidatzen eta errazten dituen "diziplinarteko agentea" da (Durbán-Roca, 2010).

Senaren (2015) aurreko lan batean, Williams, Waven eta Morrisonen (2013) ikerketari egiten dio erreferentzia. Ikerketa horretan Lance, Rodeney eta Haminton-Pennell (2005), Todd eta Kuhlthau (2005) eta Shah eta Farooqen (2009) eskola-liburutegia emaitzetan duen eragina aztertzen dute. Honela, errendimendu ezberdina izatea, lan proiektuak kontuan hartzea, informazioa ulertzea eta erabiltzea eragiten duen ikaskuntzan eta ikasteko jarrerak hobetzea, hots, motibazioa, lanerako jarrera eta irakurtzeko zaletasuna oinarritzat hartu behar direla adierazten dute.

Beraz, eskola-liburutegia ikasleen prestakuntzan integratuta dago, ikasteko modua hobetzen baitu; izan ere, eskola-liburutegiak ikaskuntza-eragile aktiboak dira (Farooq eta Shah, 2009; Haminton-Pennell, Lance eta Rodeney, 2005; Todd eta Kuhlthau, 2006, 2005, 2004). Gainera, liburutegiari esker, ikasleek errendimendu akademikoa handitzen da (Burgin, Bracy eta Brown, 2003; Haycock, 2003, 2011); irakurketa-emaitzak hobetzen dituzte, irakurketarekiko jarrera hobetzen baitute (Huymans, et al., 2013) eta gainera, ikasleen gaitasun pertsonalak, sozialak eta laboralak prestatzeko eta garatzeko lagungarria izaten da.

Hala ere, Williamsek, Wavenek eta Morrisonen (2013) egiaztatu zuten eskola-liburutegien eragin positibo hori baliabide egokiak edukitzearen eta horietan funtzionamendu-baldintza jakin batzuk izatearen menpe dagoela: eskola-liburutegiek irakurketa-animaziozko programa goiztiarrak garatzea; ikasleei programa pertsonalizatuekin laguntzea; eskola-liburutegiak eskolan modu aktiboan parte hartzea; liburutegirako sarbide malgua eta langileen hornidura egokia izatea; liburutegiaren irekiera-denbora zabala izatea eta

informaziorako sarbide elektronikoa eskaintzea. Beraz, eskola-liburutegiak hezkuntza-sisteman duen balioari eta ikaskuntzan duen eragin positiboari buruzko ikerketek ondorio onuragarriak dituztela baieztatzen dute, baina soilik horiek gutxieneko baldintza egokiekin funtzionatzen dutenean eta betekizun jakin batzuk betetzen dituztenean.

2.2.5 Familiaren eragina

Familiak berebiziko andura du haurren garapenaren lehenengo urteetan. Umearen eta gurasoen artean lehen harremanak ematen dira, harreman hauek bereziak eta iraunkorra dira, intentsitate afektiboa eta konfiguratzeko gaitasunagatik (Muñoz, 2005).

Afektu-trukeak familia giroen elementu garrantzitsuak dira, eta ikaslearen aisialdiarekin edo gurasoek emandako arretarekin lotuta daude. Familien laguntza gero eta nabarmenagoa da seme-alaben hezkuntzan eta hainbat alderditan gauzatzen da, hala nola, ikastetxeko irakasleekiko komunikazioan, eskolako lanak egiteko orduan laguntza eta aholkularitzan, eta baita haien eguneroko lanen aurrean erakusten dituzten kezketan ere (Ruiz de Miguel, 2001).

Irakurtzeko ohiturei dagokienez, familia-ingurune pizgarria izateak eragin positiboa du ikasleen garapenean: irakurketak balio handia duen familietan giro positiboa ikusten da. Etxe hauetan haurrei ipuinak kontatzen zaizkie, etxebizitzetan ikasteko espazio bat dago eta irakurtzeko baliabideak daude (etxeetan liburuak, hiztegiak edo aldizkariak daude) (Cerrillo eta Yubero, 2007). Gainera, giro kultural aberatsa duten familietan irakurketa maiztasunez egiten da. Hori dela eta, irakurketak gurasoen kultur prestakuntza eta maila sozioekonomikoa eragin handia izaten du (Martinez Gonzalez, 1992). Halaber, etxeetan liburuak edukitzea, irakurtzeko ohitura izatea edota haurrei ipuinak irakurtzea ohitura onekin lotzen diren aldagaiak dira. Europako beste ikerketa batzuek ondorioztatu dutenez, ikasleen maila kognitiboa eta interesetan oinarritutako irakurketa-materiala hautatzeak ikasle hauen ikaskuntza-prozesuaren partaide bihurtzea eragiten dute, honela haien irakurketa-ohituraren motibazioa eta jabeakuntza areagotzen da (Çelik, Demirgüneş eta Fidan, 2015; Inal, 2007; Yildiz eta Akyol, 2011).

Modu honetan, irakurketaren eta idazketaren ikaskuntza funtsezko tresna bihurtzen da, eta eragin zuzena du haurren arrakastan edo porrotean, ez bakarrik eskolan, baita eskolatik kanpo ere (Urquijo, 2009).

PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

Atal honetan, gradu amaierako lana burutzeko Urduñako Andra Mari ikastetxean aurrea eraman den proposamen didaktikoa azalduko da. Egin den proposamen metodologiko zehatza, helburuak, edukiak, konpetentziak, ebaluazioa, denboralizazioa eta kronograma ageri dira. Azkenik, proposamena aurrera eraman ondoren ateratako emaitzak, ondorioak eta hobetzeko proposamenak ere jorratu dira.

3. HELBURUAK

GrAL honen bitartez, ikasleak emozioetara gerturatzea lortu nahi da, haien egunerakotasunean aurrean izaten dituzten emozioak izendatzen ikasteko. Honakoa lantzeko proposamen didaktikoan, bi helburu mota landu izan dira:

3.1 Helburu orokorrak

Así es mi corazón (Witek, 2004) liburuan oinarrituta, lehen hezkuntzako bigarren mailan gaitasun eta trebetasun emozionalen garapena lantzea.

3.2 Helburu espezifikoak

- Eguneroko egoeretan ematen diren emozioak identifikatzea.
- Umeek haien emozioez kontziente izatea.

4. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

Sortutako proposamen didaktikoan kokatu ahal izateko, jardueretan parte hartutako parte-hartzaileen ezaugarriak aipatuko dira. Baita ere, aurrera eramateko jarraitu den prozedura ere.

4.1 Parte-hartzaileak

Proposamen metodologiko honen parte-hartzaileak Urduñako Antzinako Andra Mari ikastetxeko 2. mailako ikasleak izan dira. Taldea 26 ikasle osatzen dute, 16 neskak eta 10 mutilek, hain zuzen ere. 2.mailako klasean kultura aniztasun handia dago, Perutik etorritako 4 ikasle eta Asiatik eta Saharatik etorritako ikasle bana daude. Ikasgelan 26 ikasle badira ere, proposamen metodologikoan 25 pertsonak parte hartu dute, ikasle bat 2 hilabetez eskolara etorri gabe egon zelako. Horretaz gain, 2. mailako ikasgelan autismoa duen ikasle bat dago eta, ondorioz, ACI-a (kurrikulum moldaketa) dauka ikasgai guztietan, beraz, ikasgai guztiak 1. mailako edukietara egokituak ditu. Beste ikasle batek, nahiz eta diagnostikorik ez eduki, matematika, gaztelanian eta euskaran 1.mailako edukiak lantzen ditu.

Proposamen didaktikoa aurrera eramateko ikasle guztien maila eta zailtasunei erreparatu zitzaien, ikasle guztiek modu egokian parte hartu zezaten. Proposamen honetan egin diren jarduera ezberdinetan taldean aritu izan direnez soziograma bat (ikus 1.eranskina) aurrera eramane da, haien arteko erlazioak aztertzeko. Azkenik, ikasleei argazkiak ateratzeko baimen orria banatu zitzaien ikasleen guraso edo tutoreek sinatzeko (ikus 2.eranskina).

4.1 Prozedura

Jarduerak aurrera eramateko ordu beteko sei saio behar izan dira. Proposamen didaktiko honetan planteatutako jarduera guztiak Bisquerrak (2009) proposatutako konpetentzia emozional eta sozialetan oinarritu dira, betiere ikasleen maila kognitibora moldatuz. Horretarako denboralizazioa eta kronograma eta sortu da.

➤ Denboralizazioa:

Denboralizazioaren bitartez lau bloke sortu dira. Atal bakoitzak helburu ezberdina izan du ikasleen ikaskuntzan. Jarduera guztiak blokeetan zatitu izan dira ikasleen ikaskuntzan progresioa sortuz:

- ✓ **LEHENENGO ETA BIGARREN SAIOAK:** AURRE EZAGUTZAK
- ✓ **HIRUGARREN SAIOA:** LIBURUAREN LANKETA
- ✓ **LAUGARREN ETA BOSGARREN SAIOAK:** ROLE PLAYING ETA ISTORIOAK SORTZEN.
- ✓ **SEIGARREN SAIOA:** EBALUAZIOA

➤ Kronograma:

Bisquerrak (2009) egindako konpetentzia emozional eta sozialei buruzko proposamena jarraitu da proposamen didaktikoa osatzerako orduan, Bisquerrak aipatutako konpetentziak izan dira proposamen didaktikoa egiteko erabili izan den oinarria.

1. Taula. Bisquerrak (2009) proposatutako konpetentzia emozional eta sozialak.

BISQUERRAK (2009) PROPOSATUTAKO KONPETENTZIA EMOZIONAL ETA SOZIALAK		
EMOZIOEN KONTZIENTZIA	1. eta 2. saioak	Lehenengo saioetan, ikasleek haien sentimendu eta emozioen inguruko kontzientzia landu dute. Hau da, sentitu dituzten emozioak identifikatu eta adierazi dituzte. Azkenik, sentitu dutenari izena jarri diote.

AUTONOMIA PERTSONALA (AUTOGESTIOA)	3. saioak	Nork bere erantzukizunak hartu ditu momentu horretan nola sentitu diren adierazteko, horrela bere esperientziak adierazi eta onartu dituzte.
ERREGULAZIO EMOZIONALA	4. saioak	Emozioak modu zuzenean adierazi dituzte eta hauek erregulatzeko ezinbestekoa dela antzematen dute.
PERTSONEN ARTEKO INTELIGENTZIA	4. eta 5. saioak	Jarduera hauetan zehar ikaskideen arteko errespetua eman da, besteak entzun eta ulertzeko eta jardueratan parte hartzeko trebetasuna izaten dute.
NORBERE BIZITZAN ETA ONGIZATEAN TREBETASUNAK IZATEA	4. eta 5. saioak	Egoera ezberdinak aztertu eta arazoak identifikatu dituzte.

4.2 Oinarrizko kompetentziak

Proposamen didaktikoan kompetentzia ezberdinak landu dira. Hurrengo tauletan ageri dira jarduera ezberdinetan erabilitako oinarrizko zehar-kompetentziak eta diziplina barneko kompetentziak.

2. Taula. Oinarrizko zehar kompetentziak.

OINARRIZKO ZEHAR-KOMPETENTZIAK	
Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia	1.saioa, 2. saioa, 3. saioa, 4.saioa eta 5.saioa
Ikasteko eta pentsatzeko kompetentzia	1. saioa, 2. saioa, 3. saioa, 4. saioa eta 5. saioa.
Elkarbizitzarako kompetentzia	1. saioa eta 2. saioa.
Norbera izaten ikasteko kompetentzia	1.saioa, 2. saioa, 3. saioa, 4.saioa, 5.saioa eta 6.saioa

3. Taula. Diziplina barneko kompetentziak.

DIZIPLINA BARNEKO KOMPETENTZIAK	
Hizkuntza eta literatura komunikaziorako kompetentzia	3. saioa eta 5.saioa.

4.3 Edukiak

Eduki ezberdinen bitartez ikasleek informazioa barneratzea eta informazio hori ezagupen bihurtzea lortu nahi da. Honakoak izan dira horretarako erabili diren edukiak:

- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea eta arrazoiak ematea).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Harremanak eta komunikazioa pertsonekin lantzea.
- Taldeak ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa eta hitzik gabekoa).

4.4 Ebaluazioa

Edukiak landu ahala ebaluatu dira. Horretarako etengabeko behaketa egin da. Ebaluazio prozesua hirutan zatitu da: hasierakoa, hezigarria eta batutzailea izatea.

Lehenengo jardueran ez da edukien inguruko ebaluaziorik egin, lehenengo jardueran aurre ezagutzetan oinarritzen baita. Beraz, helburua ikasleen aurre jakintzak aztertzea izan da, diagnosis egiteko eta haien abiadura zehazteko. Ondoren, irakaslea jardueretan prozesua bideratzen aritu da, zailtasunak hautemanez eta soluzioak bilatuz. Prozesu honen bitartean, jardueraren arabera adierazle ezberdinak aipatu dira. Amaieran, minimoak bete diren aztertzeko, ikasleek lortu dituzten emaitzak zehaztu dira. Horretarako ez da azterketa edota kontrol zehatzik egin. Azkenengo emaitzari baino, prozesuari garrantzia eman zaio, horregatik irakaslearen papera funtsezkoa izango da.

Honakoak dira irakasleak ebaluazioa egiteko kontuan izan dituen **ebaluazio adierazleak**:

- Testuko gaia eta ideia nagusiak ulertzen ditu.
- Badaki adi-adi entzuten eta solasaldietan parte hartzen.
- Badaki besteei errespetu osoz entzuten.
- Bere ideian, gertaeren, bizipenen, sentimenduen eta iritzien berri emanez parte hartzen du komunikazio-interakzioetan.
- Aktiboki parte hartzen du denen artean adostutako esanahiak eraikitzeke negoziazio prozesuetan.
- Ikaskuntzan aurrera egitearen aldeko jarrera du.

4.5 Jardueren azalpena

Atal honetan aurrera eraman diren sei saioak ageri dira. Saio bakoitzean behar izan den denbora, elkarketa mota nolakoa izan den, zein material erabili den, erabilitako instalakuntzak, jardueren helburu zehatzak eta, azkenik, jardueraren garapena azaltzen dira.

1. SAIOA: Aurre ezagutzak			
DENBORA	ELKARKETA	MATERIALAK	INSTALAKUNTZAK
40 min	Banaka eta taldeka	Fitxak eta txartelak	Gela arrunta
JARDUERAREN HELBURUAK		- Ikasleek emozioen inguruan dituzten aurre ezagutza identifikatzea.	
JARDUERAREN GARAPENA			
<p>Lehenengo jarduera honen bitartez, ikasleek emozioen inguruan dituzten aurre ezagutzak landu dira. Taldeak sortzeko aurretik egindako soziograma erabili da, taldean lan egitea eskatzen duten jarduera guztietan ikasle berberak aritzeko: lau pertsonako bost talde eta bost pertsonako talde bat, hain zuzen.</p> <p>Jarduerari hasiera emateko, emozioak zer diren galdetu zaie, galdera arbelean jarritz, eta haien erantzunak ere arbelean idatziz. Ondoren, ikasle bakoitzari fitxa bat eman zaio (ikus 3. eranskina); bertan emozio desberdinak agertzen zaizkie eta bakoitza dagokion emotikonoekin lotzeko eskatu zaie. Horretaz gain, momentu horretan sentitu duten emozioa adierazteko emotikono bat marraztu dute.</p> <p>Geroago, arbelean emozio negatiboak eta positiboak kokatzeko unea iritsi da. Horretarako, bakoitzak jada bere fitxa egin du duelarik, talde bakoitzari emozio ezberdin bat agertzen duen txartel bat (ikus 4.eranskina) ematen zaio eta bere fitxa arbelean jartzen dute, emozioa negatibo edo positiboa den adieraziz. Modu honetan, haien aurre ezagutzak ikusi, aztertu eta emozioen inguruan agertu diren zalantzak argitzen dira.</p> <p>*OHARRA: Lehenengo jarduera hau ezinbestekoa izan da guztien artean</p>			

zuzentzea eta guztiek emozioak argi dituztela ikustea, bestela, ezin izango lituzkete ondorengo ariketak modu zuzenean bete, ulergaitzak suertatuko litzaizkielako.

2. SAIOA: Aurre ezagutzak

DENBORA	ELKARKETA	MATERIALAK	INSTALAKUNTZAK
20 min	Banaka eta taldeka	Fitxak eta dadoak	Gela arrunta
JARDUERAREN HELBURUAK		<ul style="list-style-type: none"> ➤ Ikasleek emozioen inguruan dituzten aurre ezagutza identifikatzea. ➤ Eguneroko egoeratan ematen diren emozioak aztertzea. 	

JARDUERAREN GARAPENA

Taldeetan (lau pertsonako bost talde eta bost pertsonako talde bakarra) talde bakoitzari emozio ezberdinak dituen dado bat ematen zaio. Dadoan lehenengo fitxan landutako 8 emozio ezberdin (maiteminduta, haserretuta, triste, urduri, harrituta, serio, pozik eta aspertuta) daude emotikono ezberdinez adieraziak.

Horretaz gain, ikasle bakoitzak fitxa bat dauka (ikusi 5. eranskina) eta dadoa bota ondoren fitxan agertzen diren galderak erantzuten dituzte. Ondoren, nahi izanez gero, guztien aurrean egoera ezberdinak azaltzeko aukera dute.

Modu honetan, ikasle bakoitzak egunero bizitzen dituen egoerak kontatu eta azaltzeko aukera dauka, bai eta egoera horietan nola sentitzen den adierazteko momentua. Beraz, emozioen inguruan hitz egiteko aukera izateaz gain, guztiok batera egoera ezberdinak ikertzeko aukera sortzen da.

3. SAIOA: "Así es mi corazón" liburua			
DENBORA	ELKARKETA	MATERIALAK	INSTALAKUNTZAK
60 min	Banaka	Liburua eta papera	Gela arrunta
JARDUERAREN HELBURUAK		<ul style="list-style-type: none"> ➤ Ikus-entzunezko istorioa ulertzea. ➤ Sormena erabiliz egoera ezberdinak adierazi eta garatzea. ➤ Istorioa interpretatzea. 	
JARDUERAREN GARAPENA			
<p><i>Así es mi corazón</i> Jo Witek-en liburua (ikus 6.eranskina) lantzeko momentua iritsi da. Lehenengo pausoa liburuaren azalak aztertzean datza. Ikasle guztiak lurrean esertzen dira borobil erdia osatuz, gertutasuna lortzeko asmoz. Guztiek liburua ikusteko aukera dute, haien eskuetatik pasa baita, baina zabaldu gabe. Liburua ikusi ondoren irakaslearen eskuetara bueltatzen da eta orduan hasten dira galderak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ <i>"Nor uste duzue dela ondoren ikusiko dugun istorioaren protagonista?"</i> ➤ <i>"Zer uste duzue gertatuko dela ondoren ikusi eta entzungo dugun istorio honetan?"</i> <p>Galdera hauen helburua ikasleen irudimena antzematea dugu; gainera, modu honetan ikasleei aditzera ematen diegu hasieran pentsatzen dutena eta istorioko gertakizunak oso desberdinak izan daitezkeela.</p> <p>Ondoren, irakasleak liburua orrialde zehatz batean irekitzen du, 7-8. orrialdeetan, eztanda agertzen den irudian, hain zuzen ere, eta galdera honi erantzun behar diote:</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ <i>"Eta hemen zer gertatuko da?"</i> <p>Ikasleek ozen erantzuteko aukera dute baina irakasleak adierazitako ordena errespetatuz. Hau da, besoa altxatu eta egokitutako pertsona hitz egiteko lurretik altxatu behar da, arreta guztia bereganatzeko. Horrela denbora mugatu batez jarduten da. Jarduera honen bitartez, hizkuntza lantzen dute, emozioak ardatz direlarik (zoriona, haserrea, tristura...).</p> <p>Ondoren, istorioa irakurtzeko momentua iritsi da. Irakurtzeko unean</p>			

irakasleak pausaguneak errespetatzen ditu, tonu ezberdinak erabili eta keinuak eginez, ikasleen arreta mantentzeko asmoz. Istorioak aurrera egin ahala, zauritutako bihotzaren irudian (11-12. orrialdeetan), bertan zer gertatuko den galdetu eta ikasleek egindako espekulazioen inguruan hitz egiten dute. Ondoren, istorioaren amaieran agertzen den galdera kontzen da kontuan: "Eta zure bihotza nolakoa da?". Ikasleek galdera honi erantzuteko, bakoitza paper batean bere bihotzaren irudia margozten du; nahi izanez gero, besteei erakutsi eta azaltzeko aukera duelarik.

4 . SAIOA: <i>Role playing</i>			
DENBORA	ELKARKETA	MATERIALAK	INSTALAKUNTZAK
30 min	Banaka	Fitxa eta txartelak	Gela arrunta
JARDUERAREN HELBURUAK		<ul style="list-style-type: none"> ➤ Modu sortzailean egoera ezberdinak sortu eta interpretatzea. ➤ Gorputzaren mugimenduaren bidez emozio ezberdinak adieraztea. ➤ Taldean lan egitea, parte hartuz, komunikazio egokia sustatuz. 	
JARDUERAREN GARAPENA			
<p>Ikasleak taldeetan jarrita, talde bakoitzari egoera bat ematen zaio eta egoerak klase aurrean interpretatzen dituzte (ikus 7.eranskina). <i>Role playing</i>-a bukatzean galdera hau egiten zaie: "<i>Zer gertatu da egoera honetan?</i>". Ikasleak eskua altxatuz egoera horretan gertatutakoaren inguruan mintzatzen dira bai eta adierazitako emozioa zein den adierazten. Horretarako talde bakoitzari emozio guztiak agertzen diren txartel bana eman zaie (lehenengo jardueran emandakoak) eta egoeraren arabera beraiek pentsatzen duten emozioa altxatzen dute. Azkenik, talde bakoitzari egoera bat interpretatzeko aukera du.</p>			

5. SAIOA: Istorioak sortzen			
DENBORA	ELKARKETA	MATERIALAK	INSTALAKUNTZAK
30 min	Banaka	Fitxa eta txartelak	Gela arrunta
JARDUERAREN HELBURUAK		<ul style="list-style-type: none"> ➤ Modu sortzailean istorio ezberdinak sortu eta interpretatzea. ➤ Taldean lan egitea, parte hartuz, komunikazio egokia sustatuz. 	
JARDUERAREN GARAPENA			
<p>Irakasleak bi poltsa ateratzen ditu. Poltsa batean egoera ezberdinak daude; beste poltsan, aldiz, protagonista ezberdinak irudi baten bitartez irudikatuak eta azpian pertsonaia bakoitzaren izena (ikus 8.eranskina). Talde bakoitzak poltsa bakoitzetik paper bat hartu eta egokitutako pertsonaia eta egoerarekin istorio laburra idazten du. Taldekide guztiek istorioaren sorkuntzan parte hartzeko, haien artean rol ezberdinak banatzen dira: idazkaria, bozeramailea, koordinatzailea, materialaren arduraduna eta hizkuntzaren arduraduna.</p> <p>Istorio laburra idazteko talde bakoitzak fitxa bat du (ikus 9.eranskina) eta bertan aurretiaz egokitutako egoera eta pertsonaia baliatuta taldekide guztien laguntzarekin istorio laburra (5-6 lerro) idazteari ekiten diote.</p> <p>Istorioa idazteko baldintza bakarra jartzen zaie: ordurarte aipatutako emozioen bat agertzea. Istorioa bukatzean marrazki bat egiten dute, istorioaren azala izango dena. Amaitzeko, taldeek beren istorioa kontatzen dute klasekiden aurrean.</p>			

6. SAIOA: Ebaluazioa			
DENBORA	ELKARKETA	MATERIALAK	INSTALAKUNTZAK
30 min	Banaka	Fitxa eta txartelak	Gela arrunta
JARDUERAREN HELBURUAK		<ul style="list-style-type: none"> ➤ Nork bere buruarengan duen irudikapenaz kontziente izatea. ➤ Nork bere iritzia adieraztea, gaiarekiko zein taldean lan egitearekiko. 	
JARDUERAREN GARAPENA			
<p>Proposamen didaktikoarekin bukatzeko, egindako lanaren ebaluazioa eta haien autoebaluazioa egiteko fitxa betetzen dute (ikus 10. eranskina). Jarduera guztietan zehar emozioen inguruan aritzeko eta egoera ezberdinak ezagutu eta aztertzeko aukera izanez. Galdera-fitxa honen bitartez ikasleei hainbat galdera egiten zaizkie. Helburuei begira, alde batetik, bakoitzaren barne irudia eta besteen iritzia ikasleren eragina aztertzea dugu. Bestetik, talde lanean aritzean duten jarrera aztertzea. Azkenik, proposamen didaktikoa etorkizunean hobetzeko asmoz galderak egiten zaizkie: landutako gaiaren inguruan, ikasi dutenaren inguruan eta gehien eta gutxien gustatu izan zaien jardueraren inguruan.</p>			

5. EMAITZAK

Jarduera ezberdinetan lortutako emaitzak interpretatu eta aztertzeko asmoz jarduera guztien datuen analisisa aurrera eraman da. Hori egiteko jarduera guztiak lau bloketan banatuak izan dira: aurre ezagutzak, liburuaren lanketa, *role playing* eta istorioak sortzen eta azkenik, ebaluazioa.

1) AURRE EZAGUTZAK (1. eta 2. saioak)


Aurre ezagutzak lantzeko proposamen didaktikoaren lehenengo eta bigarren saioak erabili dira. Lehenengo saioan, ikasleei fitxa bat eman zaie, bertan emotikono batzuk kokatuak agertu dira eta ikasleek emotikonoaren azpian egokitzen zen emozioaren izena idatzi behar zuten.

➤ **Aurre ezagutzak (1. saioa)**

Lehenengo jardueran 2.mailako ikasle guztiek parte hartu zuten. Emotikonoaren arabera erantzun desberdinak eman zituzten. Akats gehienak urduri, haserre eta harrituta adierazten zituzten emozioetan ageri izan dira. Hau da, 11 pertsonak (%44) urduri adierazten zuen emotikonoa txarto izendatu zuten; haserre adierazten zuena, aldiz, 10 pertsonak (%40) txarto adierazi zuten, eta azkenik, harrituta adierazten zuena, 9 pertsonak (%36). Horretaz gain, poza adierazten zuen emotikonoa ulertu eta emozioarekin lotzeko ez dute inolako arazorik izan, 25 pertsonak (%100) ondo erantzun baitzuten.

Erantzun guztiak kontuan izanda (ikusi 1.grafikoa), ikasleen, %40ak baino ez ditu guztiak zuzen erantzun, hain zuzen ere, 10 ikasleek. Ikasleen % 60ak emozioen batean porrot egin eta ez ditu guztiak zuzen erantzun, hain zuzen ere, 15 ikasleek.


1. Grafikoa. Erantzun guztien emaitzak.



Lehenengo saioaren bigarren zatian ikasle talde bakoitzari emotikono bat banandu zitzairen eta hauek arbelean emozio negatibo edo positiboa adierazten zuen lekuan kokatu zituzten (ikusi 12. eranskina). Jarduera honetan, zalantza ugari agertu ziren eta ikasle bakoitzak egoeraren arabera emozioa positiboa edo negatiboa zela baieztatu zuten. Ikasle batek honako egoera adierazi zuen: "Ni urduri egon naiteke nire urtebetetzea delako eta opariak izango ditudalako, orduan emozioa positiboa izango da. Baina nire

gurasoak etxetik joaten direnean ere urduri nago eta orduan emozioa negatiboa da". Ikasleak honakoa esatean beste ikasleak zalantzetan agertu ziren emozioak kokatzeko orduan. Horregatik, azkenean emozioak negatiboak edo positiboak diren adierazteko ikasle talde bakoitzak egoera bat asmatu zuen eta egoeraren arabera emozioak leku batean edo bestean kokatu zituzten.

2. Grafikoa. Emozio negatibo eta positiboak.



➤ **Aurre ezagutzak (2. saioa)**

Bigarren saioan, talde bakoitzari zortzi aurpegiko dado bana eman zitzaion. Dadoaren aurpegi bakoitzean aurretik landutako emozioak zeuden: pozik, urduri, aspertuta, maiteminduta, serio, haserretuta, triste, harrituta (ikus 13.eranskina). Bakoitzak dadoa hiru aldiz bota behar zuen, ateratzen zen emozioa fitxan idatzi eta ondoren emozio hori noiz sentitzen zuen adierazi.

Ikasle bakoitzak emozio konkretu bati erreparatuta 3. grafikoan aurkitzen diren erantzunak eman zituzten. Dadoa bota eta emozio ezberdinak kontuan hartuta ikasleek haien egunerokotasunean noiz sentitzen zuten adierazteko aukera izan zuten. Erantzun gehienek (10 pozik, 10 triste eta 8 harrituta) adierazten zuten emozioak izan zituzten. Izan ere, aipatutako hiru emozioak askotan errepikatu ziren. Gainera, pozik noiz sentitzen ziren adierazteko

unean grafikoan ikusten den moduan hamar pertsonak honako emaitzak adierazi zituzten: klasean, futboleko jolastean, gauza onak esatean, egun guztietan, plazara joatean, nire anaiarekin jolastean, nire amarekin jolastean, plazara joatean, etxean, jolastean eta denbora guztian. Azkenengoa, hau da, denbora guztian pozik sentitzen zirela bi ikasleek aipatu zuten. Bestalde, erantzun gehienak kontuan hartuz ikasleak jolasten zutenean pozik sentitzen direla nabarmentzen da.

Ikasleak aspertuta sentitzen zirela adierazteko orduan, zazpi pertsonak honakoa adierazi zuten: aitzak abestean, klasean, amak liburuak kontatzean, bakarrik egotean, lo egitean eta etxean. Ikasleek erantzunak errepikatuak izan dira lo egitean eta etxean egotean adierazi dutenean.

Hamabi ikasleek triste sentitzen dira: ama lanera joatean, inork haiekin jolastu nahi ez duenean, irintzean, Athletic-ek galtzean, gurasoak haserretzean, jo eta irainak jasotzean, eskolan, azotea jasotzean eta jotzean. Gehien errepikatu den erantzuna eta beraz, ikasleak triste sentitzen dira beste pertsona batek jotzean.

Zazpi ikasle maiteminduta sentitzen direla adierazi dute egoera hauetan: neska laguna eskola dutenean, mutil laguna deitzean, norbait famatua ikustean, inoiz ere ez eta gauza politak esaten dizkietenean. Gehien errepikatu diren erantzunak azkeneko biak izan dira, haur da, inoiz ez direla maiteminduta sentitu eta beste bi pertsonen arabera gauza politak esatean.

Bederatzi ikasleek aldiz, harrirituta sentitzen dira: telebista ikustean, erlijio ikasgaian, haluzinatzean, Athletic-ek galtzean, gauza politak esaten dizkietenean, eta opariak eta sorpresak jasotzean. Azkenengoak, hau da, gauza politak esaten dietenean, eta opariak eta sorpresak jasotzean, ikasle bat baino gehiagok aipatutako erantzuna izan zen.

Ikasle batek baino ez du erantzun urduri sentitzen dela adierazteko orduan. Eta haren erantzunaren arabera, urduri sentitzen da lagunekin jolasten ez duenean.

Bestalde, hiru pertsonak serio sentitzen direla adierazteko, egoera hauek adierazi dituzte: gauza politak esaten ez dizkietenean, liburuan ariketak daudenean eta gaixorik egotean.

Azkenik, bost ikasle haserretuta sentitzen dira: oihuak jasotzean, mina hartzean, jo eta oihukatzean, bakarrik egotean eta zigorrak jasotzean.

3. Grafikoa. Zein emozio egokitu zaizu? Noiz sentitzen zara horrela?




2) LIBURUAREN LANKETA (3. saioa)

Así es mi corazón liburua irakurtzeko irakasleak gelaren kokapena aldatzea erabaki zuen. Irakasleak ikasleen aulki eta mahaiak alde batean jarri eta bere aulkia gelaren erdian kokatu ondoren, bere aulkiaren inguruan esertzeko esan zien borobil erdia osatuz eta liburuaren azala erakutsiz (ikus 14.eranskina). Irakasleak liburua zabaldu gabe ikusteko aukera eman zien eta horrela ikasleen eskuetatik igarotzen joan zen.


Ondoren, berriro liburua irakaslearengana heldu zenean honako galdera egin zuen: *"Nor uste duzue dela ondoren ikusiko dugun istorioaren protagonista?"*. Hasieran ikasleek protagonista bihotza izango zela adierazi zuten baina ondoren, ikasle batek protagonista neska izango zela esan eta guztiek neska izango zela adierazi zuten. Ikasle guztiek zerbait esan ondoren, hurrengo galdera bat egin zitzaion: *"Zer uste duzue pasatuko dela ondoren ikusi eta entzungo dugun istorio honetan?"*. Ikasle guztiek haien iritzia esan nahi zuten irakasleak hitz egiteko eskua altxatu behar zutela adierazi zuen. Modu honetan, hitz egiten zuen pertsonak haren iritzia ematean protagonista bihurtzen zen eta guztiek berari begiratzen zioten. 4. grafikoan ikusten diren baieztapenak egin zituzten. Hau da, 10 ikasleek (%40) protagonistaren bihotza bidaia bat egingo zuela adierazi zuen. 8 pertsonek (%32), aldiz, neska bere bihotzak dituen koloreak erakutsiko zituela.

4. Grafikoa. Ikasleen baieztapenak: *"Zer uste duzue pasatuko dela ondoren ikusi eta entzungo dugun istorio honetan?"*.




Ikasleek gero eta gogo gehiago zuten istorioa irakurri eta ikusteko. Baina irakasleak beste galdera bat egin zuen. 7-8.orrialdeetan ireki eta bertan agertzen zen irudia erakutsi ondoren, ikasleak harrিতuta geratu ziren eta honako galdera egin zitzaien: *“Eta hemen zer gertatuko da?”*. Ikasleek 5. grafikoan ageri diren erantzunak eman zituzten. Hau da, 6 ikasleek (%24) neskaen bihotza eztanda egingo zuela adierazi zuten. Beste 8 ikasleek (%32), neska haserretuta zegoela esan zuten.

5. Grafikoa. Ikasleen baieztapenak: *“Eta hemen zer gertatuko da?”*. Eztandaen irudia. (7-8. orrialdeak).



Liburuarekin lehenago kontaktua egin ostean, istorioa irakurtzeko momentu heldu zen. 11-12. orrialdeetan irakurtzeari gelditu eta bertan zer gertatuko zen galdetu zitzaien. Orrialde honetan (ikus 6. eranskina) bihotzaren irudia ageri da hesgailu batekin. Irakasleak irudiri buruz galdetzean ikasleak 6. grafikoan ikusten diren erantzunak eman zituzten. 12 ikasleek (%48) neska bihotzean mina zeukala esan zuten. 4 ikasleek (%16), aldiz, neska bihotza sendatzeko beharra duela adierazi zuten.


6. Grafikoa. Ikasleen baieztapenak: *“Eta hemen zer gertatuko da?”* Bihotzaren irudia. (11-12. orrialdeak).



Istoria bukatzean guztiak txalotzen hasi ziren eta haiek ere irakurri nahi zutelara adierazi zuten. Beraz, irakaslearen ondoan aulki bat jarri eta banan-banan hurbiltzen ziren ikaslideei istorioa berriro irakurtzeko, ilusioz betetako momentua izan zen (ikus 15.eranskina).

Azkenik, liburuaren amaieran jartzen zuen galdera erantzuteko aukera izan zuten, liburuan honakoa jartzen zuen: *“Eta zure bihotza nolakoa da?”*. Honakoa erantzuteko bakoitzak folio zuri batean bere bihotza marrazteari ekin zion (ikus 16.eranskina). Marrazki gehienak kolorez betetakoak egin zituzten. 7. grafikoan agertzen den bezala, marrazkiak ezberdinak izan ziren. 7 ikasleek (%30,4) bihotz bat margoitu zuten haien etxearekin batera, 4 ikasleek (%17,4) haien marrazkietan koloredun bihotz bat adierazi zuten izar baten barruan, beste 4 pertsonak (%17,4) ere bihotz bat adierazi zuten munduko bola baten irudiaren barnean, 2 ikasleek (%8,7) zelai bat margoitu eta bertan bihotz kokatu zuten, 5 ikasleek (%21,7) haien marrazkian koloredun bihotz bat adierazi zuten, eta azkenik, pertsona batek (%4,3) sumendi bat eta triste zeuden hiru bihotz margoitu zituen.

7. Grafikoa. Marrazkiak.



Horren ostean, nahi zuenak arbelaren ondoan jarri eta bere marrazkia erakutsi eta azalpena txikia ematen zuen (ikus 17.eranskina). Bi ikasleek haien marrazkiak erakutsi zituzten. Ikasle batek haren marrazkia azaltzerakoan bere bihotz zeruan lainoen artean zegoela adierazi zuen eta horregatik haren ondoan tximista eta pinpilinpauxa zegoela esan zuen. Beste

ikasleak, aldiz, etxe bat margoztu zuen eta haren barnean bihotza kokatu zuen eta alboan bere irudia egin zuen superheroia izango balitz bezala.

3) *ROLE PLAYING* ETA ISTORIOAK SORTZEN (4. eta 5. saioak)

➤ **Role playing (4. saioa)**

Taldeetan jarrita, irakasleak talde bakoitzari egoera bat egokitu banandu zitzaion eta denen aurrean interpretatu behar zuten *role playing*-aren bidez besteek antzeztutako egoera asma zezaten. Talde bakoitzak aurre ezagutzak lantzeko lehenengo jardueran erabilitako emotikonoen txartelak jaso zituzten, aurretik landutako emozioekin (maiteminduta, haserretuta, triste, urduri, harrituta, serio, pozik eta aspertuta). Denbora batez egoera prestatzen aritu ondoren, orden zehatz bat jarraituz, egokitutako egoera 2-3 minututan interpretatu zuten (ikus 18.eranskina). Interpretazioaren ostean, ikusleak ziren ikasleei honakoa galdetu nien: *"Zer gertatu da egoera honetan?"*. Galdera honi erantzuteko, ikasleek interpretatutako egoerak zein emoziori egiten zion erreferentzia erabaki eta adierazitakoan emotikono baten txartela altxatu behar zuten (ikus 19.eranskina). Egoera ezberdinen aurrean 5. taulan agertzen den moduan, lehenengo egoeran ikasleek honako egoera egokitu zitzaien: *"Ume guztiak patioan daude jolasten eta ikasle bat bakarrik dago inorekin jolastu gabe"*, egoera antzeztu ondoren talde guztiek triste adierazten zuen emotikonoa altxatu zuten. Bestalde, bigarren egoerari dagokionez ikasleek honako egoera interpretatu behar zuten: *"Bi ume, beste bi umei jostailu bat kentzen diote eta hauek haserretzen dira"*. Honen aurrean, hiru taldeek haserre zeudela ulertu zuten eta beste hiru taldeek, aldiz, triste. Horren aurrean ikasle batek jostailua kentzean triste sentitzen dela esan zuen. Hirugarren egoeraren aurrean, *"Irakasleak ikasleei azterketa ematen die eta guztiek gainditu dute"*, ikasle guztiek pozik adierazten zuen txartela altxatu zuten. Laugarren egoeran, aldiz, hainbat erantzun ezberdin egon ziren, egoerak honakoa adierazten zuen: *"Guztien aurrean dantzatu behar duzue gabonetan"*. Bi taldeek haserretuta adiera ematen zuen txartela altxatu zuten, beste hiru taldeek pozik eta azken talde, aldiz, triste. Bestalde, azkeneko bi egoeren aurrean, hau da, *"Gurasoek errieta egin dizuete gaiztakeriak egiteagatik eta gaur ezin izango duzue telebista ikusi"* eta *"Irakaslea denbora guztia hitz egiten ari da eta zuek klasea bukatzea nahi duzue"*, talde guztiek

erantzun berdina eman zuten. Lehenengo egoeraren aurrean, triste sentitzen zirela eta bigarren egoeran aldiz, aspertuta.

4. Taula. Ikasleek antzeztutako egoerak.

Lehenengo egoera
<p>“Ume guztiak patioan daude jolasten eta ikasle bat bakarrik dago inorekin jolastu gabe”.</p> <p>Ikasleen erantzuna: Talde guztiek (%100) “triste” adierazten zuen emotikono atera zuten.</p>
Bigarren egoera
<p>“Bi ume, beste bi umei jostailu bat kentzen diote”.</p> <p>Ikasleen erantzuna: Hiru taldek (%60) “haserre” adierazten zuen emozioa erakutsi zuten, baina beste bi taldeek, hau da, ikasleen %40ak “triste” adiera ematen zuen txartela.</p> <p>Hausnarketa: “Triste” txartela atera zuen taldeko partaide batek adierazi zuen norbaitek jostailu bat kentzen dizunean ere triste sentitzen zarela.</p>
Hirugarren egoera
<p>“Irakasleak ikasleei azterketa ematen die eta guztiek gainditu dute”.</p> <p>Ikasleen erantzuna: Guztiek (%100) “pozik” adiera ematen zuen txartela atera zuten.</p>
Laugarren egoera
<p>“Guztien aurrean dantzatu behar duzue gabonetan”.</p> <p>Ikasleen erantzuna: Bi taldeek (%33,3) “haserretuta”, beste hiru taldeek, hau da, %50ak “pozik” eta azkenengo taldeak, hau da, 16,6k “triste”.</p> <p>Hausnarketa: Ikasleen artean debate txikia sortu zen bakoitzak egoera horren aurrean emozio ezberdinak adierazten baitzituen eta ikasle guztiek besteak konbentzitu nahi zituzten.</p>
Bosgarren egoera
<p>“Gurasoek errieta egin dizuete gaiztakeriak egiteagatik eta gaur ezin izango duzue telebista ikusi”.</p> <p>Ikasleen erantzuna: Guztiek (%100) “triste” adiera ematen zuen txartela atera zuten.</p>
Seigarren egoera
<p>“Irakaslea denbora guztia hitz egiten ari da eta zuek klasea bukatzea nahi duzue”.</p> <p>Ikasleen erantzuna: Guztiek (%100) “aspertuta” adiera ematen zuen txartela atera zuten.</p>

➤ **Istorioak sortzen (5. saioa)**

Bosgarren saioan istorio laburrak sortu behar zituzten. Talde bakoitzari fitxa bat banatu zitzaion bertan idatzi zezaten (ikus 9.eranskina). Istorioa aurrera eramateko rol ezberdinak hartu behar zituzten, beraz, haiek erabaki zuten bakoitzak zer egingo zuen (idazkaria, bozeramailea, koordinatzailea, materialaren arduraduna eta hizkuntza zaintzeaz arduratzen dena).

Geroago, bi poltsa ezberdinetatik talde bakoitzeko pertsonak paper bat hartu zuten. Batean, pertsonaia agertzen zen; bestean, aldiz, egoera. Istorioa sortu ondoren, istorio horren azala ere sortu zuten (ikus 20.eranskina). Azkenik, taldeka klase aurrera atera eta haien gertaera irakurri eta istorioaren azala erakutsi zuten. Hurrengo taulan ikusi daitezke istorioen emaitzak:

5. Taula. Ikasleek asmatutako istorioak.

Lehenengo istorioa
<p>Egokitutako pertsonaia: Super txakurra</p> <p>Egokitutako egoera: Olentzeroren astoa mendian galdu da, eta opariak umeen etxeetara heltzeko astoa aurkitzea ezinbestekoa da.</p> <p>Emaitza: Super txakurra Olentzero aurkitu eta etxera eramaten du. Beraz, istorioaren amaiera zoriontsua izaten da, gainera oso pozik daudela adierazten dute sortutako istorioan.</p>
Bigarren istorioa
<p>Egokitutako pertsonaia: Lucas katua</p> <p>Egokitutako egoera: Irla batean galdu da, eta ez daki bere etxera nola bueltatu daitekeen.</p> <p>Emaitza: Protagonista asperraldiaren ondorioz irla batera joan zen eta bertatik bueltatzeko palmondo batekin txalupa bat sortzea erabaki zuen. Istorio honetan, lehenengo istorioan bezala, amaiera zoriontsua izaten da. Izan ere, protagonista berri ere bere etxera bueltatzeko aukera lortzen duelako.</p>
Hirugarren istorioa
<p>Egokitutako pertsonaia: Txio txoria</p> <p>Egokitutako egoera: Estralurtarrak lurrera heldu dira eta edabe magikoa topatu beharra dago guztia lehen bezala izateko.</p> <p>Emaitza: Istorio honetan protagonista edabe aurkitu behar du eta zuhaitz batean aurkitzen du. Beraz, aurreko bi istorioetan bezala amaiera zoriontsua izaten da eta poz-pozik dagoela adierazten dute.</p>


Laugarren istorioa
<p>Egokitutako pertsonaia: Amaia superheroia</p> <p>Egokitutako egoera: Lapurrak bankura sartu eta diru guztia hartu dute. Detektibe bilakatu eta lapurrak aurkitzea da bere helburua.</p> <p>Emaitza: Lapurrek egindako lapurreta baten ondorioz superheroia gaiztoak harrapatzen ditu. Beraz, berriro ere amaiera zoriontsua izaten da, eta gainera, istorio honetan poliziek lapurrak non dauden ez dakitenez haserretzen direla adierazten dute.</p>
Bosgarren istorioa
<p>Egokitutako pertsonaia: Jack pirata</p> <p>Egokitutako egoera: Bere laguna dragoi bihurtu da eta edabe bat aurkitu behar dute berriro lehen bezala izateko.</p> <p>Emaitza: Protagonista eta bere lagunak edabe magiko baten bila doaz eta honakoa aurkitzen dute, ondorioz, pozik daude. Beste egoeren antzera, bertan ere amaiera ona izaten da.</p>

4. EBALUAZIOA (6.saioa)

Azken saioan proposamen metodologikoa borobiltzeko ikasle bakoitzari galdera fitxa bat banatu zitzaion (ikusita 10.eranskina). Bakarka, margo gorria, berdea eta laranja erabili behar zuten galdetegia askoz intuitiboagoa suertatzeko. Azkeneko galderetan, aldiz, arkatzaren bidez gehien eta gutxien gustatu zitzaiena idatzi behar zuten.

Emaitzei dagokienez, ikasleei proposamen didaktikoan zehar zein izan den gehien gustatu zaiena galdetzean, 8. grafikoa ikusita, %50ak *role playing*-a izan zela adierazi zuen, hala ere, %29,2ak liburua gustuko izan dutela adierazi du. Oso ikasle gutxik, aldiz, % 12,5k dadoarekin egindako praktika eta % 8,3k fitxak betetzea izan zela esan zuen.

8. Grafikoa. Proposamen didaktikoan gehien gustatu zaiena.



Ikasleei gutxien gustatu zitzaiena adierazi behar zutenean, 9. grafikoaren emaitzei erreparatuta, ikasleen %92ak "ezer ere ez" adierazi zuen. Hau da, gutxien gustatu zitzaiena adierazi behar zutenean guztia gustatu zitzaiela esan zidaten. Hala ere, %8ak gutxien gustatu zitzaiena dadoaren jokoa izan zela esan zuen.

9. Grafikoa. Proposamen didaktikoan gutxien gustatu zaiena.



Laburbilduz, ikasleen erantzunetan oinarrituz egoera ezberdinak antzeztea izan da gehien gustatu zaiena. Horretaz gain, gutxien gustuko izan dutena erantzutean gehienek ez zuten ezer erantzun.

Beraz, aipatutako lau atalei (aurre ezagutzak, liburuaren lanketa, *role playing*-a eta istorioak sortzen eta emaitzetan) erreparatuz ondorengo atalean ateratako ondorioak ikertzeko momentua izango da.

6. ONDORIOAK

Emozioetan oinarritutako proposamen didaktikoan proposatu diren jardueren bitartez ikasleak emozioetara gerturatzea lortu da. Egunerokotasunean bizi izaten dituzten egoeretan oinarrituz sentitzen dutena hitzen bidez adierazteko gaitasuna garatu dute. Jarduera guztiak errealitatearekin lotura estua izan duten heinean, ikasleak modu autonomoan haritu dira erabakiak hartzen eta egoera berriak sortzen. Horretaz gain, kideak sortu dituzten egoerak ulertu eta emozioak identifikatzea lortu dute.

Gainera, proposamen didaktikoa osatzen duten jarduera guztietan ikasleen parte hartzea oso handia izan da, oso gustura aritu dira, hori oso positiboa izan da proposamena aurrera eramateko orduan. Emozioen gaia asko gustatu zaie eta batez ere, liburua irakurri eta *role playing*-a aurrera eramatean ikasleen motibazioa oso handia izan da. Honakoa adierazi dute autoebaluazio egiteko orduan, izan ere, ikasleek %50ak *role playing*-a aurrera eramatea gehien gustatu zaien jarduera izan dela adierazi baitu eta bestalde, %37,5ak liburua izan dela adiera eman dute.

Liburuaren bitartez ikasleek egoera ezberdinak ikusi eta protagonistak erakusten zituen emozioak ulertzeko aukera izan dute. Modu honetan, ipuinean gertatzen diren egoeren aurrean emozio desberdinak erakutsi dituzte. Hasieran liburua irakurri aurretik eta bitartean urduritasun apur bat nabaritzen zen eta hura bukatzean poza. Honekin lotuta, Bisquerrak (2009) aipatzen duen moduan, emozioak hainbat egoeretan betetzen dituzten funtzioak, hots, motibatzea, ongizatea sustatzea, ingurunera egokitzea eta sentitutakoa adieraztea eragiten dituzte. Batez ere liburua bukatzean berriro irakurtzeko motibazioa izateaz gain, sentitutakoa besteei adierazteko nahia nagusitu da.

Era berean, *rol playing*-a eta dadoen jokoaren bitartez ikasleek haien egunerokotasunean ematen diren egoerak adierazi eta emozioak aztertzeko aukera izan dute. *Rol playing* erabilia arazo ugari izan dituzte emozioak gorputzaren bidez adierazteko orduan. Gainera, egoera batzuetan eztabaidak sortu ziren, horren aurrean jarduera bukatu ostean zera adierazi nien, egoera ezberdinen aurrean pertsonok modu ezberdinetan sentitu eta bizi izaten dugulako. Momentu horretan ikasleek konturatu ziren erantzun guztiak zuzenak zirela, ikusteko moduaren arabera egoeraren aurrean interpretatzeko modu ugari daudelako. Horretaz gain, dadoen bitartez emozioak zein egoeretan sentitzen zituzten adierazteko ere arazoak izan dituzte. Hori proposamen didaktikoa burutu arte zuzenean emozioak inoiz landu ez zituztelako izan daiteke. Beraz, ondoriozta daiteke emozioak lehen hezkuntzako lehenengo mailetan landu beharko litzatekela, nor bere burua hobeto ezagutzeko, norberak sentitzen duena identifikatzeko, ebaluatzeko eta ulertzeko eta norberaren emozioak erregulatzea eragiten baitu, marko teorikoan adierazi bezala (Extremera eta Fernández-Berrocalek, 2004). Modu berean, emozioak kontrolatzeko, interpretatzeko eta gainerakoekin behar

bezala erlazionatzeko gai diren pertsonak bizitzako egoera ezberdinen aurrean positiboago aritzen dira, hala nola, familian, lan-eremuan edo harreman pertsonaletan. Aitzitik, adimen emozionaleko trebetasunak garatu ez dituztenak etengabeko barne-borroketan murgilduta egon daitezke (Goleman, 2009).

Halaber, ikasleen euskara maila baxua izan da. Eskolan B eredu abian dago eta, ondorioz, ikasgai gehienetan ez dituzte euskaraz burutzen. Horretaz gain, irakasleek ikasleekin gazteleraz komunikatzeko ohitura daukate. Horrek eragin negatiboa izaten du eta ikasleei asko kostatzen zaie euskaraz komunikatzea, idatziz zein hitz egiten. Gainera, Urduña herriko egoera soziolinguistikoari begira, ez dago euskaraz hitz egiteko joerarik eta herritarren arteko komunikazioa gazteleraz ematen da.

7. HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Emozioen inguruan egindako lana etorkizunean Lehen Hezkuntzako geletan lan egiteko baliagarria izango da, beste ikasle batzuekin aurrera eramateko aukera dagoelako. Hobekuntzei dagokienez, denbora aipatu beharra dago, hau da, emozioen gaineko proposamen metodologikoa askoz gehiago landu daiteke bi hilabetetan zehar astero saio bat erabiliz. Gainera, emozioak lantzeko hainbat baliabide daudela azpimarratuko nuke. GrAL-a egiteko liburu bat erabili bada ere, hasieran 18 liburuko zerrenda prestatu zen (ikusi 21. eranskina). Zerrenda prestatzeko orduan irizpide nagusia Lehen Hezkuntzako bigarren mailan emozio bat edo gehiago lantzen zuen istorioa aurkitzea izan da. Modu honetan literaturak eskaintzen dituen aukerak baliatuz, hau da, istorio ezberdinek eskaintzen dituzten egoerak landu daitezke; besteak beste, poza, tristura, beldurra, heriotza, dibertsitatea eta autoestimua.

Bestalde, 2.mailako ikasleek aurre ezagutzak lantzeko orduan emozioak adierazi eta izendatzeko arazo ugari izan dituzte, emozioak inoiz landu ez dituztelako. Curriculumean emozioei garrantzia ematen zaie, Heziberri 2020ko 236/2015 dekretuan adierazten den moduan: "Norberaren emozioez ohartu eta haiek erregulatzen dituen pertsonak oinarri ona du gainerako pertsonen tokian jarri eta haien emozioak ulertzeko. Horren ifrentzuan, besteren emozioak ulertzeko ahaleginak lagundu egiten du norberaren emozioak ulertzen". Hala ere, errealitatean gaur egungo hezkuntzan

emozioek bigarren mailako papera dute. Beraz, emozioak landuz gero ikasleen arlo emozional zein sozialean eragin handiak ekarriko lukete, haien eguneroko bizitzan kapaz izango direlako haien emozioak kudeatu eta ulertzeko, eta besteen emozioen aurrean enpatia eta errespetua adierazteko.

8. BIBLIOGRAFIA

- Bettelheim, B (1999). *Psicoanálisis de los cuentos de hadas*. Bartzelona: Crítica.
- Bigas, M eta Correig, M (2001). *Didáctica de la Lengua en Educación infantil*. Bartzelona: Síntesis.
- Bisquerra, R. (2003). Educación emocional y competencias básicas para la vida. *Hezkuntza ikerketa aldizkaria*, 21(1), 7-43. 2019ko azaroaren 11an berreskuratua URL honetatik: <https://revistas.um.es/rie/article/view/99071/94661>
- Bisquerra, R (2008). *Educacion emocional y bienestar*. Bartzelona: Wolters Kluwer.
- Bisquerra, R. (2009). *Psicopedagogía de las emociones*. Madril: Síntesis.
- Ceballos, I. (2016). *Iniciación literaria en Educación Infantil*. España: Universidad Internacional de la Rioja.
- Çelik, T., Demirgüneş, S. eta Fidan, D. (2015). Investigating the relationship between the feature of reader-friendly text and reading comprehension achievement. *Başkent University Journal of Education*, 2(1), 115-122.
- Cerrillo, P. eta Senís, J. (2005). *Nuevos tiempos, ¿nuevos lectores?*. Ocnos: revista de estudios sobre lectura, (1), 19-33. 2020ko ekainaren 12an berreskuratua URL honetatik: <https://www.redalyc.org/pdf/2591/259120382002.pdf>
- Cerrillo, P. (2007). *Literatura Infantil y Juvenil y educación literaria*. Bartzelona: Octaedro.
- Cerrillo, P., eta Yubero, S. (2007). *La formación de mediadores para la promoción de la lectura*. Cuenca: Universidad de Castilla La-Mancha.

- Colomer, T. (2009). *Entre la normalidad y el desinterés: Los hábitos lectores de los adolescentes*. Barcelona: Graó.
- Colomer, T. (2010). *Introducción a la literatura infantil y juvenil actual*. Madrid: Síntesis.
- Coronas-Cabrero, M. (2000). *La biblioteca escolar. Un espacio para leer, escribir y aprender*. Pamplona: Departamento de Educación y Cultura del Gobierno de Navarra.
- Clark, C., eta Foster, A. (2005). Children's and young people's reading habits and preferences. The who, what, why, where and when. National Literacy Trust. 2020ko martxoaren 29an berreskuratua URL honetatik: <https://files.eric.ed.gov/fulltext/ED541603.pdf>
- Durbán-Roca, G. (2010). *La biblioteca escolar hoy: Un recurso estratégico para el centro*. Barcelona: Graó.
- Eusko Jaurlaritzak: Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. (2014). *Heziberri 2020: Hezkuntza Eredu Pedagogikoaren Markoa*. 2020ko otsailaren 4an berreskuratua URL honetan: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/eu_2_proyec/adjuntos/OH_curriculum_oso.pdf
- Extremera, N., eta Fernández-Berrocal, P. (2003). La inteligencia emocional en el contexto educativo: hallazgos científicos de sus efectos en el aula. *Hezkuntza aldizkaria*, 332(12), 97-116. 2020ko martxoaren 20an berreskuratua URL honetatik: <https://pdfs.semanticscholar.org/f617/a229033a155dc5fa1129b220cae2dc0364cf.pdf>

- Extremera Pacheco, N., eta Fernández-Berrocal, P. (2004). El papel de la inteligencia emocional en el alumnado: evidencias empíricas. *Hezkuntza ikerkuntza aldizkaria*, 6(2), 1-17. 2020ko martxoaren 24an berreskuratua URL honetatik: <http://www.scielo.org.mx/pdf/redie/v6n2/v6n2a5.pdf>
